

Behin behinekoen inguruko Europar Batasuneko Justizia Tribunalaren azken epaiak

Zerbitzu publikoetan dagoen prekarietatea mugatzeko baliatuko dugu Europako jurisprudentzia

UPV/EHUK ere azaleratu beharko ditu bere beharrizan estrukturalak

Gure Zerbitzu Publikoetako langileen artean prekarietate aldagai nagusia lanaren behin-behinekotasuna da. Gai honen inguruan, Europatik heldu diren hainbat epairen berri jaso dugu berriki. LABek epai hau positiboki baloratzen du euskal administrazio gehienetan dagoen behin-behinekotasun tasa altuak ikusita, aldi baterako langileen egoeran honen aplikazioak ekar ditzakeen onurengatik. 

LABek, epaion urgentziazko lehen irakurketaldian oinarrituta, eta egingo ditugun irakurketa xeheagoen zain, honako ondorio juridikoak ateratzen ditu:

- Aldi baterako kontratua duten funtzionarioek, hau da, funtzionario interinoek, laborek bezala EPEa egin bitartean, “funtzionario mugagabe ez finkoaren” izaera eskuratzeko eskubidea izango dute baldin eta haien kontratazioan iruzurrik izan bada.
- Aldi baterako kontratua duen langile orok -laborala, estatutarioa edo funtzionarioa izan - bere aldi-baterako lan harremana etetea, kalteordaina jasotzeko eskubidea izango du.
- Administrazioak ezin du beharrizan edo eginkizun estruktural bat betetzeko aldi baterako kontraturik egin. Hortaz, denboran zehar behin eta berriz errepikatzen den eginkizun baten kasuan, aldi baterako kontratazio asko eginez gero, dena delako eginkizun hori estrukturaltzat hartua izan beharko da, eta berau betetzeko dagokion lanpostua sortu.

Epaiok bestalde, indarrean diren Europako zenbait zuzentarautan oinarrituz, bete beharrekoak dira, eta inongo legedik zein lan hitzarmenek ezin du ezer ezarri aplikazio zuzenekoak diren zuzentarau hauen kontrako norabidean.

LABek oso positiboki baloratzen ditu epaiok arrazoi birengatik:

- Batetik, euskal administrazio gehienetan dagoen behin-behinekotasun tasa altuak ikusita, aldi baterako langileen egoeran honen aplikazioak ekar ditzakeen onurengatik (egonkortasuna sustatu, kalteordainak aitortu,...).
- Bestetik, zerbitzu publikoen sistema egonkortu eta sendotzeko ekar dezakeenarengatik. Gure administrazio eta Zerbitzu Publikoen sistema gutxienekotzat jo liteke, hau da, gure agintari politikoek gutxieneko lanpostu batzuk baino ez dituzte egiturazkotzat jotzen, eta bestelako zeregin asko betetzeko aldi baterako kontratazioen bidea hautatzen dute. Epai honek praktika anker honen kontra egiten du, eta behin eta berriz errepikatzen diren zereginak administrazioaren funtzio estruktural bezala aitortuak izan eta lanpostu estruktural baten bidez beteak izateko aukerak irekitzen ditu. Gainera, zuzentarau hauek estatuen legedien gainera daude, eta beraz, espainiar Estatuak birjartze tasaren inguruan ezarritako legedi murriztailea indargabetuta gera liteke honen aplikazioz.

Hala, azken urteotan kontratazio finkoak egiteko edota lanpostu publiko berriak sortzeko arazo edo oztopoak Estatuako legedian zein birjartze tasan kokatzen zuten alderdiek, badute arazo edota oztopoak saihesteko bidea, eta orain badute erakustea ea Estatuako oinarritzko legedia kezka iturri ala aitzakia zuten. Nolanahi ere, LABek euskal administrazioak zuzentzen ari diren gobernu guztiei epai hauen bidez, europar direktibak aplikatuz, espainiar legediari bizkar eman eta zerbitzu publikoak eraikitze bide propioari ekin diezaioten aldarrikatzen eta borrokatzen jarraituko du.

Datozen egunotan, LABek azterketa sakonagoa egingo du sententziok dakartzaten ondorio guztiak

ahalik eta zehatzen ezagutzeko, eta honen arabera erabakiko ditu zein inizatiba juridiko edota sindikal hartuko dituen aldi-baterakotasunaren ondorioak mugatzeko, zein Zerbitzu Publikoak sendotzeko.